

LABURPENA

Izenburua: HIRI MERKATARITZAREN LANKIDETZA, DINAMIZAZIO ETA LEHIAKORTASUNEKO ZONAKO ESTRATEGIAK SUSTATZERA BIDERATUTAKO HIRIGUNE PROIEKTUAREN 2025EKO LAGUNTZA-PROGRAMA – HIRIGUNE 2025

Helburua:

Agindu honen xedea da merkataritza-elkarteen jarduera bultzatzeko 2025eko laguntzak arautzea, hiri-merkataritzaren lankidetzaren dinamizazio eta lehiakortasuneko zonako estrategiak sustatzeko, modu horretan merkataritza-sektorea biziberri dadin.

Aurrekontu-dotazioa: 2.100.000 euro.

ARAUDIA

Araudi erregulatzailerak:

AGINDUA, 2025eko Martxoaren 18koa, Turismo, Merkataritza eta Kontsumoko sailburuarena, zeinaren bidez arautzen eta iragartzen baita Hiri Merkataritzaren Lankidetzaren, Dinamizazio eta Lehiakortasuneko zonako estrategiak sustatzera bideratutako Hirigune proiektuaren 2025eko laguntza-programa.

ERAKUNDEAK

Deialdia egiten duen erakundea:

Turismoa, Merkataritza eta Kontsumoa

Deialdia egiten duen organoa:

Turismo eta Merkataritza Sailburuordetza

Organo ebazlea:

Merkataritza Zuzendaritza

Harremanetan jartzeko:

Merkataritza Zuzendaritza

Tfno.: 945 01 66 14

Merkataritzako Bulego Teknikoak

Zuzenean zerbitzuaren bulegoak

ATMerkataritza@ejie.eus

IZAPIDEAK**ONURADUNAK****Onuradunak**

- a) Merkatarien elkarteak eta zona-eremuko elkarte mistoak formalki eratuta eta inskribatuta egon beharko dute beren izaera juridikoa edo eginkizunak direla-eta 2025eko urtarrilaren 1a baino lehen nahitaezkoak diren erregistroetan.
- b) Hiri-merkataritzaren plataformak, elkarte multzoak edo elkarteak, pertsona fisiko edo juridikoen multzo gisa eratuak, publikoak zein pribatuak, edo edozein motatako unitate ekonomiko edo ondare, nortasun juridiko propioa duena, eta, zuzenbideak onartutako edozein eran, 2025eko urtarrilaren 1ean horrela inskribatuta daudenak.

Dekretuaz arautu baitzen, eta datu horiek erregelamenduaren arabera eguneratuta badituzte

Laguntza-mota

Diruz lagundu daitezkeen jarduketak lerro hauetan kokatuko dira, lehenetasunez:

1. Hurbileko merkataritza dinamizatzeraz bideratutako azterlanak.

Aholkularitza-enpresa espezializatuek beharizan-azterketak eta programak egitea, merkataritza-jarduketako proposamen zehatzak, jarduteko plan estrategikoak eta establezimendu elkartuen salmenta-puntuko diagnostikoak formulatzeko, erosketa-esperientzia hobetze aldera. Azterlan horiek zehatz-mehatz definituko dituzte gauzatze-epaiek, zuzeneko eragina izango dute hurbileko merkataritzaren dinamizazioan, eta merkataritza-zona edo merkataritza-sektore espezifikoetara zuzenduta egongo dira. Lerro honen gehieneko zenbatekoak, diruz lagundu daitekeen guztizko zenbatekoari dagokionez, ezingo du haren % 20 gainditu, eta, nolana ere, diruz lagundu daitekeen zenbatekoa gehienez 20.000 euro izango da.

2. Hurbileko merkataritzari laguntzea.

Hurbileko merkataritzari laguntzea, merkataritza-sektorea edo zona batzuk sustatzeko ekintzak eginez, xede espezifiko hauetara bideratuta:

- a) Erakunde onuradunek sustatuta, azokak, animazio-jarduerak eta antzeko ekitaldiak egitea, merkataritza-zona jakin bat sustatzeko, eremu jakin batean edo jarduerasektore batean kontsumoa bultzatzeko edo udalerrira erosketetarako helmuga gisa ezagutzera emateko. Sustapen-ekitaldien kasuan, hornidura-kontzeptuen gastua ezingo da izan jarduketaren guztizkoaren % 20 baino handiagoa.
- b) Sustapen-kanpainak egitea, zuzeneko salmentak bultzatzeko eta kontsumitzaileak fidelizatu eta erakartzeko, saltoki txikien abantailak azpimarratuz.
- c) Merkataritzaren arloa eta merkataritza-jarduerarekin lotutako zerbitzuak sustatzea, kontsumitzaileei sariak, opariak eta primak emanez; horretarako, lehiaketak, zozketak edo merkataritza-sustapeneko eta -ordezkaritzako antzeko beste metodo batzuk erabiliko dira, barnean hartuta saltoki-bonuaren berezko kanpainak eta antzeko beste toki-kanpaina batzuk. Kanpoan geratuko dira eskudiruzko sariak.
- d) Zona jakin batera merkataritza-fluxuak erakartzea erraztuko duten merkataritzaren zerbitzu osagarriak antolatzea eta sustatzea.
- e) Sektorre guztiarentzat interesa duten lankidetzaz-zerbitzuak garatzea eta kontratatzea, eskalako ekonomiak sortzen dituzten proiektuak egiteko, negoziazio onuragarriak lortzeko eta abar.
- f) Gizartearen eta ingurumenaren aldetik kontsumo jasangarria bultzatzen duten jarduketak, bai eta kontsumo arduratsua, kontzientea eta hurbilekoa bultzatzen dutenak ere, helburua izanik bertako produktuen aldeko apustua finkatzea.
- g) Tokiko merkataritzari buruz sentsibilizatzeko jarduketak, eta ingurumeneko eta kontsumo arduratsuko jardunbide onen balioa azpimarratzen dutenak.
- h) Auzoetan lokal hutsek sortzen dituzten arrakalak ezabatzeraz bideratutako jarduketak; hau da, lokal hutsak dinamizatzeko helburua dutenak.

3. Digitalizazioa eta teknologien erabilera.

Digitalizazioko eta teknologiak erabiltzeko tresnak ezartzea merkataritza-zonetan; adibide gisa aipatzen dira hauek:

- a) Merkataritzarako aplikazio digitalak ezartzea: soluzio eta gailu digitalak instalatzea (erakusleho birtualak, sentsoreak, eskanerrak, mikrofonoak); marketineko tresna

digitalak aplikatzea (kudeaketako software aurreratua, ordainketa-sistemak eta abar).

- b) Big data edo datuen prozesamendua; adibidez, sare sozialetako mezuak, telefono mugikorreko seinaleak, mezu elektronikoak, inkestetako datuak eta abar.
- c) Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak (IKT) erabiltzea, gehiago balia daitezzen sare sozialak, webguneak eta merkataritzara bideratutako mapa komertzial geoposizionatuak.
- d) Onlineko eta formatu txikiko erosketak jasotzeko guneak ezartzea, bai gune fisikoetan, bai etxerako bidalketetan.
- e) Proba pilotu teknologikoak ezartzea eskala txikian, sektorearen eta kontsumitzaileen eskariei erantzuteko.
- f) Onlineko merkataritza garatzea eskura dauden salmenta-plataformen bidez, eta haien mantentze-lanak egitea.
- g) Mugikorrerako aplikazioak garatu eta mantentzea, eta txikizkako saltokien berri ematea aplikazio horien bidez.
- h) Dinamizazio-plataformak ezarri eta mantentzea, zeinetan txertatuko baitira udalaren hiri-ekonomiaren ikuspegia eta, besteak beste, aisialdiarekin, ostalaritzarekin, turismoarekin eta kulturarekin dituen sinergiak.

f), g) eta h) letretan adierazitako mantentze-lanetarako ekintzen zenbatekoak ezingo du gainditu dirulaguntzaren guztizko zenbatekoaren % 25 baino handiagoa, ekintza horiek garatzera eta mantentzera bideratutakoei dagokienez, ehuneko horrek ezin izango du eskaeran aurkeztutako zenbateko osoaren % 35 gainditu. Nolanahi ere, merkataritza-zuzendaritzako teknikariak arduratuko dira proiektuak baloratzeaz eta horien eraginkortasuna eta egokitasuna aztertzeaz.

4. Konpetentzia digitalei buruzko prestakuntza.

Konpetentzia digitalak areagotzeko prestakuntza-ibilbideak, saltoki bakoitzaren digitalizazio-mailari egokituak, helburu dutenak udalak tokiko hiri-ekonomia dinamizatzeko egiten dituen jardueretan txikizkako saltokiak sartzea; eta txikizkako saltokietan beharrezkoak diren teknologiak txertatzeko ezinbestekoak diren konpetentzien gaineko prestakuntza, fakturazioaren eta tributazioaren arloetan indarrean dagoen araudia bete dezaten (adibidez, TicketBai sistemarena).

Aurrekontu-dotazioa

Emandako laguntzen zenbatekoa ahalik eta handiena izango da, 2. artikulua aplikatzearen emaitzatik, betiere artikulua honen hurrengo puntuan zehaztutako udalerriko muga kontuan hartuta.

2.artikulua: agindu honek onuradun izateko eskatzen dituen betekizunak betetzen dituzten erakundeek laguntzak ematea du helburu, baldin eta eskabideak behar bezala eta sasoz egin badituzte.

Horretarako, programa finantzatzeko erabili beharreko aurrekontu-zenbatekoak ez badira nahikoak egindako eskabideei gehieneko zenbatekoetan aurre egiteko, laguntza eskabideen artean hainbanatuko da..

Udalerriko elkarteen multzorako dirulaguntzaren gehieneko muga eragiketa honen emaitza izango da: merkataritza-tartearen arabera dirulaguntza bider udalerriko merkataritza-dentsitatearen koefizientea

- 10-40 denda dituzten udalerriak: 12.000,00 euro
- 41-150 denda dituzten udalerriak: 27.000,00 euro
- 151-250 denda dituzten udalerriak: 35.000,00 euro
- 251-750 denda dituzten udalerriak: 55.000,00 euro
- 751-1.500 denda dituzten udalerriak: 70.000,00 euro
- 1.501-3.000 denda dituzten udalerriak: 95.000,00 euro
- 3.000 dendatik gora dituzten udalerriak: 125.000,00 euro

Erantsi beharreko agiriak

1. Eskabide formularioa.

2. Administrazioak laguntzak ordaindu ahal izateko, erakunde eskatzaileak Ekonomia eta Ogasun Sailaren Kontrol Ekonomikoko Bulegoaren Hirugarrenen Erregistroan alta eman beharko du edo bere banku-datuak aldatu beharko ditu telematikoki (<https://www.euskadi.eus/eusko-jaurjaritza/-/hirugarrenaren-datu-aldaketa>). Bankuaren datu horiek aktibo mantenduko dira, hala badagokio, laguntza ordaindu arte.

3. Eskaerarekin batera ondorengo agiri hauek aurkeztu beharko dira:

- a) Eskatzailearen identitatea egiaztatzen duen dokumentazioa; horretarako, eratzes-kritura, estatutuak eta erregistroko inskripzioa aurkeztu beharko ditu.
- b) Entitate eskatzailearen identifikazio fiskaleko txartela, baldin eta nahi ez bada instrukzio-organoak aipatu informazioa lortzea administrazioarteko elkarreragingarritasun-zerbitzuen bitartez.
- c) Laguntza zer jarduketarako eskatzen den, bada horietako bakoitzerako azalpen-memoria bat, merkataritza-ikuspegitik egina, gutxienez informazio hau jasoko duena:
 - 1) Garatu beharreko jarduera bakoitzaren gauzatze-proiektua, zera adieraziz:
 - 1.a) Lortu nahi diren helburuak.
 - 1.b) Gauzatu beharreko ekintzak.
 - 1.c) Egindakoaren eraginkortasuna neurtzeko adierazleak.
 - 2) Sarreraren eta gastuen aurrekontu xehatuak.
 - 3) Gauzatze-egutegia.
 - 4) MSPB azterlanean edo hori ordezkatzeko edo osatzen duen beste azterlan batean sartzen dela.
Udalerriak PERCO azterlanik ez bada, udalerriko merkataritza-garapenean jarduketak egitea egokia dela egiaztatzea.
 - 5) Jardueran parte hartzeko aukera jakinarazteko erabiliko den sistema, hala behar den kasuetan.
- d) Elkarteko edo hiri-merkataritzako plataforma, elkarte multzo edo elkarteko idazkariaren ziurtagiria, kideen zerrenda jasotzen duena, 2024eko abenduaren 31n eguneratua, eta kide bakoitzarengandik azken ekitaldian bildutako kuotak. Enpresen zerrenda sexuaren arabera desagregatu behar da; alegia, merkataritza-enpresa kideetako titular diren emakumezkoak adieraziko dira, alde batetik, eta titular gizonetzkoak, bestetik.
- e) Udalerriko elkarteek sinatutako akordioa, 4. artikuluan adierazitakoaren arabera.
- f) Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren Erregelamenduko 22.2 artikuluan identifikatzen diren administrazio-ziurtagiri positiboak, baldin eta eskatzaileak aurka egiten badio

kudeaketa-organoak zuzenean agiri horiek eskuratzeari, zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak bete direla egiaztatzeari buruzko Ekonomia eta Ogasuneko sailburuaren 2023ko otsailaren 13ko Aginduaren 6. artikulua arabera.

Eskabide telematikoaren URL

www.euskadi.eus/zerbitzuak/1015612

Deskargatzekoa den inprimakiaren URL

<http://www.euskadi.eus/nirekudeaketak>

DEIALDIAREN EGOERA

Hasiera-data: 2025/03/27

Amanera-data: 2025/04/28

Isilbidearen ondorioak

Ezetsia

Ebazpenaren aurkako errekurtsioak:

- **Errekurtso-mota:** [Gorako errekurtsioa](#)
- Organo ebazlea: Merkataritza eta Turismo Sailburuordetza
- Errekurtsoa aurkezteko epea: hilabete bat.
- Ebazpena emateko epea: 6 hilabete.
- Ebazpen adierazirik eza: Ezetsia.